

Ignacio Mugica Amondarain (Ipintza Bitartekoa)

- Abaltzisketan 1917/02/15ean jaioa.
- 1936/11/20an hil zen Teruelgo frentean.
- Soinujolea zen. (Ikus soinuaren argazkia)
- Honen soinuarekin anaiak ikasi zuen gero.

Juan Mujika Amondarain (Ipintza Bitartekoa) (14 senideetatik gazteena)

- 1919/05/23an jaioa, Abaltzisketan.
- 1990/1/20an hil zen Billabonan (Ordizian ere bizi izan zen).
- Gaztetan gosea ezagutu zuten, eta S. Juan bezperan amak egindako katilukada arrozesa izaten zuen urtebetetzeko oparia, suari begira jateko.
- Ogia erositakoan koxkorra kenduta ekartzen bazuen, beste senideek egurra ematen zioten. Txerrientzako patata edo gaztainak egosten bazituen amak, handik ere zerbait faltatzen omen zen, eta amak honela esan ohi zuen: "txerrientzako janik gabe utziko naute".
- Anoetako Pilar Uzkudunekin ezkondua (Hernion maitemindu ziren).
- Larraitzen soinua jotzen zuen, eta baita Ataunen ere (S. Gregorion), ezkontzetan...
- Ataungo S. Gregoriora bizikletaz joaten zen soinua jotzera, eta diruaz gain, afari ona ematen zioten; goizeko 07:00ak aldera itzultzen zen etxera. Jaten ematen ziotela eta, semeetako bat eramaten omen zuen berarekin (7-8 urtekoa), baina lo hartzen omen zuen eta aita erabiltzen zuen larruzko txaketarekin tapatuta lo egiten omen zuen (hori kontatzean, pena handiz aritu zen Begoña).
- Seme-alaben ikasketez asko arduratzen omen ziren gurasoak (mutilekin batez ere), eta solfeoa ikastera ere joaten omen ziren CAFeko kaperako D. Jesus Dorronsorengana; Jesusek borondatez irakasten zien auzokoei.
- Gerran hildako anaiaren akordeoia beste anaia batek hartua izan behar zuen nonbait, eta Juanek hari erosi omen zion (oraindik etxean dute). Larraizko Joxe Marik erabili omen zuen denbora dezentez akordeoi hura.
- Partiturak irakurtzen bazekien, izan ere Ordiziako Gurrutxaga musikariak prestatzen omen zizkion partiturak akordeoiarekin jotzeko. Harreman handia omen zuten.
- Anoetan, amaren jaiotetxean, Eguberri politak igarotzen omen zituzten, aita akordeoia jota.
- Etxean, ama nazkatu arte aritzen omen zen akordeoia jotzen. Emozionatuta aritzen omen zen akordeoiarekin, barren-barrendik ateratzen zitzaion, askotan negarrez ere bai.
- Emazteak eskatuta eta eskuetako arazoengatik (lan gogorra omen zuen) utzi zuen akordeoia.

Martin Zubeldia Aizpurua (Erbeta Txikikoa) (Iturria: Agustin)

- 1907/03/03an jaio zen Abaltzisketan.

- 1979/08/24an hil zen Belauntzan.
- Margarita Irazustarekin ezkondua. Hamar seme-alaba izan zituzten.
- Lanbidez hargina zen, eta inguruetakoko Eliza gehienetan lanean aritua izan behar zuen, horietan egiten zuen gehienbat lan.
- Bere kabuz ikasi zuen soinua jotzen, 5.000 pta. (30 €) inguru ordaindutako (garai hartan diru asko) Larrañaga Guerrini soinuarekin.
- Larraitzen soinua jotzen 10 edo 15 urtez aritu omen zen.

Elgoena eta Elbarrena izeneko alderdietan bananduta omen zegoen Abaltzisketa, eta lehia handia omen zegoen elkarren artean. Larraitza bakoitzak soinujole bana eramaten omen zuen eta nork jende gehien bilduko aritzen omen ziren (beste gauza batzuen artean). Inauterietan ere ibiltzen omen zen Txantxoekin.

- Larraitzen soinua jotzen ari zela, nafarrak Lizarrustin tiroka ari zirela iritsi omen zen albistea eta festa bertan behera utzita laster joan omen ziren etxera. Martin ere eramán zuten gerrara, baina urtebete inguru bakarrik egon omen zen.
- Beste lan batzuk:
 - o Abaltzisketako elizako PONTEA egin omen zuen, denbora asko kostata.
 - o Narrastokiko iturria ere berak egin omen zuen.

Martinen seme Bernardo Zubeldia Irazusta ere (1935/02/06ean jaioa) soinua jotzen bere kabuz ikasitakoa zen. Txantxoekin ibiltzen omen zen. Larunbatetan bere gelan soinua jotzen saioak egiten omen zituen eta arrebek ere gustura egiten omen zituzten dantza-saio ederrak.

Agustin Zubeldia Irazusta (Martinen semea)

- Abaltzisketan jaioa 1947/03/03an.
- Herriko eskolan zebilela, beste batzuekin batera, Joxe Eizmendik, herriko apaizak, irakasten zien solfeoa. Hamabost urte zituela Tolosako Ramon Otamendirekin (Sevillako Jazz Band lehiaketan 1. saria irabazia) ikasi zuen soinua jotzen. Solfeoa, berriz, akademian ikasten zuen eta, gero, etxean erakusten zion beste irakasle batek. Solfeoa bakarrik erakusten zioten akademian eta etxean, eta 22:00etatik aurrera bere kabuz ikasten zituen soinuarekin jotzeko piezak (senideak gustura hartzen omen zuten hori, lo goxo-goxo hartzen omen zuten eta).
- Han eta hemen soinua jotzen ibilia, baina berak dioenez, gutxi.

Xabier Zubeldia Ugartemendia (Agustinen semea)

- Ibarra 1974/VII/14an jaioa.
- Sei urterekin hasi zen Ignazio Olazabalekin soinua ikasten; gero, Isidro Larrañagarekin jarraitu zuen.
- Goi-mailako musika-ikasketak egin Donostiako kontserbatorioan.
- Bilbon maisutzako ikasketak egin, musika arloan.
- Jazz-eskolan pianoa jotzen ikasia.
- 13-14 urterekin hasi zen han eta hemen jotzen:
 - o Marruma taldean 5-6 urte.
 - o Basajaun taldean 3 bat urte.
 - o Akelarre taldean 5 urte.

- o Zirika taldearekin urtean 80 bat ezkontzatan jotzen du.
 - o Isidro Larrañagaren orkestran ere jotzen du eta harekin klaseak eman ere bai. 1989/12/10ean Urrezko domina jaso zuen orkestra horrek Frantziako MUTXIGen.
 - o Alur dantza taldean ere jotzen du.
 - o Mikel Garikoitz taldean ere jo zuen, eta DENALI izeneko diskoa atera zuten.
- Akordeoiaz gainera, teklatuak, txirula, txistua... jotzen ditu.
- Edurne Zubeldia Ugartemendia (Agustinen alaba)
- o 1985/02/16an jaioa Ibarra.
 - o Trikitixa ikasi zuen, Iñakirekin eta Kristina Soroarekin
 - o Izaskungo erromerian jo zuen 3 bat urtez.
 - o Euskal Herrian zehar ospakizun eta ekitaldi askotan ibilia.
 - o Alur dantza taldeko kidea (Abaltzisketako Joxe Luis Zubeldia Gorostidik sortutako taldea)

Paulo Urretabizkaia Telleria (Inazio Urretabizkaia Mendizabalek idatzia)

1922ko abenduaren 18an jaioa, Abaltzisketako Zelain baserrian, bederatzi anai-arreben famili batean.

Gazte-gaztetatik hasten da baserriko eginkizunetan lagunduz. Geroago, anai nagusiei laguntzen hasiko da. Anai zaharragoak artzainak ziren, mendian egoten ziren eta haie janaria eta beste mila gauza eraman behar izaten zien Aralarreko bordetarraino.

Denborarekin bera ere artzaintzan hasiko da.

Anaien baserrietan ere hainbat lan egindakoa.

Soinu-txikia edo Trikitixa bere kaxa ikasten du. Eskualdeko erromeri hainbatetan ibiltzen zen soinua joz, arimak alaituz eta hankak arinduz. Gaintzan, Amezketan, Abaltzisketan bertan, edozein gertakari zen aiposoa soinuaren hauspoari astindu bat emateko.

Soinua jotzea eta saskiak egitea ziren bere bizitzako afizio garrantzitsuenak.

Ezkonduta eta Itsasondoa kokatu zen bizitzan, saskigintzan egiten du lan.

Ondoren Beasainera etortzen da bere familiarekin CAFen lana aurkitu eta geroago Fundiciones Echeverriren hasten da, Lazkaoan, han ezagutzen du berarekin lana egiten duen Ataungo gazte bat soinu-txikoaren zalea, baino denbora gutxi daukanez ikasteko, Paulori uzten dio soinua berak erabil dezan.

Soinu honek lagunduko dio hainbeste urtetan, Larrinaga & Guerrini markakoa zen.

1989ko martxoaren hamabian, Gipuzkoako Foru Aldundiak omenaldia bat eskaintzen die eskualdeko trikitilari zaharrenei: Norberto Oiarbide "Benta-Txiki", Fernando Goenaga eta Paulo Urretabizkaia-ri. Omenaldi hau trikitixa mantendu eta sustatu izanagatik eskaintzen zaie.

Ordiziako frontoian egiten da, bildutakoak egun polita igarotzen dute; omenutakoak zer esanik ez.

Denetarik jotzea gustatzen zitzaion, Laja, Sakabi beste batzuen tartean ziren bere maisuak. Irratian entzundakoa ere grabatu egiten zuen gero lasai entzuteko eta berak ikasteko,

Erlizjioa oso barnean zeraman eta azkeneko urteetan Arantzazura igotzen zen askotan, tartean "Novenario" bezala ezagutzen direnak ospatzea, horietara ere bere soinuarekin joaten zen; tontor haietan ere bere doinuak barreiatzen ibiltzen zen.

2004ko abenduaren 19an hil zitzaigun, laurogeita bi urte zituela.

Berarekin ikasitakoak eta bere soinuaren doinu goxo-goxoak betiko geratuko dira geure baitan.

Mila esker guztiagatik,

Beasain, 2008.eko martxoak 15

Jose Gorostidi Plazaola

- Abaltzisketan jaio zen 1917/03/02an.
- Lakuntzan hil zen (istripuz) 1950/02/18an.
- Larraitzen jotzen zuen soinua.
- Bere kabuz ikasi zuen soinua jotzen.
- Amezketan asko jotzen zuen, eta hots egiten zioten lekuetan ere bai.
- Lakuntzan hil zen istripuz, soinua jotzera joan eta kotxe batek zapaldu zuen.
- Hil zenean, Leitzan bizi ziren.
- Hara eta hona ibiltzen omen ziren, lana non familia han.
- 1949an hil zen Lakuntzan.

Bittori Etxeberria Dorronsoro

- Jose Gorostidiren emaztea.
- 1914/02/18an jaioa Zaldibiako Izarren (Irizarren).
- Ahoko soinua jotzen zuen Larraitzen eta Araman (festetan), han egon baitzen neskame.
- Araman, 17 urterekin, Txanbolinteroek jotzeari uzten ziotenean, Bittori igoarazten zuten oholtzara eta han jotzen zuen.

Jesus Mujika Astiasaran

Ordizian jaioa 1943/10/21ean. Joxe Mari eta M^a Angelesen semea (beste 2 senide ditu).

- Elgeta soinujolearekin hasi zen ikasten; Larraitzen, Jesusen etxean, egoten zen, 2 hilabetez, eta mantenuaren truke irakasten zuen soinua.
- Gero, Eleuterio Tapiaren etxean egon zen, soinua ikasteko, han egiten zuen lanaren truke irakasten zion Tapiak soinua jotzen. Hiru udatan egon zen, apiriletik Eguberrietara.
- 14 urtetik aurrera, igande eta festa egun guztietan jotzen zuen Larraitzen, ezkondu ondoren geldi aldia izan zuen, baina Zaldibiako Jesus Telleriarekin, (berak egindako bateria jotzen du) hasi zen, batzuetan Zaldibiako “Zaharra” ere gehitzen zaie panderoarekin. Horrela osatzen dute **Jexuxen Jazpana**. Laster diskoa grabatzeko asmotan daude.
- Txapelketetan parte hartu zuten aita-semeek.
- Orain ere jarraitzen du taldearekin, eta semeak dioenez, inoiz baino saio gehiago ematen dituzte, urtean 80 bat emanaldi.

Joxe Mari Mujika Altuna

- Abaltzisketan jaio zen 1966/05/20an.
- Lehenengo Abaltzisketan egin zituen oinarrizko ikasketak, bertako eskolan, gero Alegian, Amezketan eta, azkenik, Tolosaldeko L.H. Institutuan.
- Lehenengo panderoa joz hasi zen erromerietan aitarekin parte hartzen, 10 urterekin.
- Donostiako Trinitate enparantzan egin zen Trikitilari Txapelketan parte hartu zuen, aitarekin, 11 urte zituela.

- 16 urterekin hasi zen trikitixa ikasten. Aitarekin 2 edo 3 pieza ikasi omen zituen, eta gero bere kabuz ikasi zuen. Juan Manuel Zubizarretak “Juanitok” asko lagundu omen zion hobetzen.
- Euskal Herri guztian ibilia soinua jotzen, 2 edo 3 urtez.
- Grabazio bat ere badute, “Mujika anai-arrebak, Larraizko Trikitixa” izenarekin.

▪**Idoia Mujika Altuna**

- Abaltzisketan jaioa 1973/08/17an.
- O.H.O eta L.H. ikasketak egin, estetika arloan.
- Musika:
 - Panderoa jotzen du.
 - Etxean ikasi zuen panderoa jotzen.
 - Larraitzen, ezkontzatan, beste herritako festetan eta txapelketetan anaiarekin ibilia.
 - Iker Goenaga lehengusuarekin ere ibili zen panderoa jotzen.
 - Oraindik ere, maiatzaren batean Larraitzen egiten den festan jotzen du panderoa aitaren taldearekin eta ilobarekin.

Juan Manuel Zubizarreta Lanz (Larraizko Joanito).

- Zizurkilen 1942/01/06an jaioa.
- Larraitzen bizi da; ostalaria da.
- Soinua jotzen bere kabuz, belarriz, hasi zen, baina urte batzuk pasatu ondoren, Yaben-ekin ikasi zituen solfeoa eta soinua.
- Hainbat ospakizunetan eta ezkontzatan aritua taldean jotzen:
 - Eleuterio Tapiak trikitixa.
 - Roberto Gáratek bateria (jazpana esaten du).
 - Juanitok soinua.

Azken aldian utzi samarra duela esaten du, baina, oraindik ere, zerbait egiteko gogoarekin.

Felix Mayoza Muñoz

- Asteasun jaio zen 1963/12/01ean.
- Ikasketa orokorrak Billabonan egin zituen.
- Lau urterekin ahoko soinua oparitu zion amak eta asko jotzen zuen. 11 urterekin Enrike Zelaiaren kontzertua entzun zuen Asteasun eta soinua erosteko eskatu zion amari, eta amak erosi ere bai (oso trikiti zaleak omen ziren gurasoak).
- Musika-ikasketak:
 - 12 urterekin bere kabuz hasi zen soinua jotzen.
 - 14 urterekin Isidro Larrañagarengana bidali zuten ikastera: solfeoa eta soinua.
 - Irakasle horren orkestrarekin Europan zehar ibilia kontzertuak ematen, eta Ordiziako txapelketara ere bidali zuen irakasleak; 6. egin zuen.

- Ikasketak utzi eta jotzen hasi zen han eta hemen, batez ere Nafarroan, baina bizkar hezurreko arazoak izan zituen, eta 4 edo 5 urte geldirik egon zen.
- Emaztea izango zuenak bultzatuta hasi zen berriro eta **ARINKA** taldea sortu zuten (1995); ezkontzatan ibiltzen dira. Taldearen osaketa:
 - Soinua eta teklatura Felix
 - Bateria Gorka (Tolosakoa)
 - Gitarra baxua Karmele (Aldabakoa, Donostian bizi da)
 - Kantaria Garbiñe (Beasaingoa)

Eva Dorronsoro Zubillaga

- Billabonan jaio zen, 1978/04/20an.
- Zortzi urtez aritu zen trikitixa ikasten Astiazaran anaiekin eta beste hiru urte Billabonako Martinekin.
- 16 edo 17 urte zituela hainbat txapelketetara aurkeztu zen, eta plaza askotan jo zuen soinua: Ugarte, Bedaio, Lasarte...
- Panderoarekin lagundu dutenak Aitziber Sarasola, Izaro Anza eta bere ahizpa Edurne Dorronsoro izan dira.
- Utzita dagoen arren, familia dela eta, lehengoa berritu nahi du.

Iñaki Artola Artola

- Antonio eta Lurdesen semea.
- Abaltzisketan 1982/11/3an jaioa.
- Goi-mailako Informatikako zikloa egin zuen.
- Bederatzi urterekin hasi zen soinu txikia ikasten Juan Tapiarekin eta haren ikasleekin aritu zen, 7 bat urtez.
- Beste 2 edo 3 urte aritu zen ikasten Maixarekin, Altzon.
- Herri askotako plazatan aritzen da soinua jotzen, koadrilako afarietan, trikipoteoetan, hainbat ezkontzatan eta herriko Txantxoekin.
- Herriko haurrei eta Orendaingoei irakasten die soinu txikia jotzen.